

# TOPALEKUAK

elena aitzkoa

josu bilbao

eduardo chillida

laia estruch

sheroanawe


hakihiwe

Juf. bea ortega y  
leto ybarra

christian  
salablanca

marianna  
simnett







Hemen aurkezten dugun erakusketa, *Topalekuak*, Eduardo Chillida euskal eskultorearen mendeurrenaren ospakizunei Tabakalerak egiten dien ekarria da, sorkuntza garaikidea sustatzen duen zentroa den aldetik.

*Topalekuak* erakusketa Eduardo Chillidaren obraren funtsezko gaien inguruan ikuspegi berriak esploratzeko asmoz sortua da, egungo praktika artistikotik abiatuta. Belaunaldi bakoitzak klasikoak bereganatu ohi ditu bere begiradaren bidez. Hala, egungo artisten inspirazio iturri diren Chillidaren obraren alderdiak deskubritzea haren lanari zuzendutako ikuspegi berriak ezagutzeko modu bat da.

Soledad Gutiérrez komisarioak leku eta diziiplina desberdinetako artistak gonbidatu ditu Eduardo Chillidaren artelanetan eta idatzietan murgiltzera eta, haietan inspiratuta, sorkuntza berriak gauzatzera, Chillidaren legatuarekin elkarrizketa bat ezartzeko. Sorkuntza berri horien bitartez, Chillidaren obraren elementu askoren indar gero eta handiagoa nabarmentzen da, besteak beste intuizioa, artistak lan-metodologia eta ezagutza-modu gisa defendatzen zuena, tokiarekiko lotura, eta arteaz zuen ikuspegi holistikoa. Gai horiek guztiak gaur-gaurkoak dira egungo artistentzat.

Chillida Leku Museoko lantaldearen inplikazioa eta laguntza eskuzabala funtsezkoa izan da, artistei sarbidea eman dielako Eduardo Chillidaren obrara, idatzietara eta artxibora; eskerrak eman nahi dizkiogu Chillida familiari ere, proiektuaren eskura jarri izanagatik erakusketa honen parte diren haren jatorrizko pieza bikainak.

Azkenik, bereziki eskertu nahi dugu Soledad Gutiérrez komisarioaren lana eta baita erakusketan parte hartu duten artista guztiena ere.

TABAKALERA  
DONOSTIA, 2024KO EKAINA

*Topalekuak* \_\_\_\_\_ Erakusketa hau Eduardo Chillida (Donostia, 1924 - 2002) jaio zeneko mendeurrenaren ospakizunen testuinguruan sortua da eta, Chillidaren idatzietatik abiatuta, hausnarketarako espazio bat sortzea du helburu: intuizioari buruz, bilaketa-lanarako elementu gisa, lekuarekiko loturari eta beste ezagutza-modu sentikor eta sentsorialago batzuei buruz, lan-metodologia gisa. Hemen sortzen den elkarrizketak hainbat proposamen artistikotan du isla —horietako asko ekoizpen berriak—, eta gogoeta zabalagoetara hedatzen dira materialtasunaren inguruan, lan-prozesuen inguruan, eta bizi garen testuinguruekin eta elementu naturalekin ditugun harremanek “mundua ekoizten”<sup>1</sup> duten moduen inguruan.

*Topalekuak* erakusketak gogora dakar, alde batetik, Eduardo Chillidak 1964 eta 1974 artean egindako “Lugar de encuentros” seriea; hormigoizko eraikidura eseki handiek osatua. Latsarri zaharren arkitekturatik abiatuta, uraren zirkulaziori buruz jardun zuen hausnarketan Chillidak. Aldi berean, intuizioa ziurtasun bilakatzeko den unera eramaten gaitu, artistak ideiekiko “topaketak” deitzen zuenera.

Prozesuaren bilakaera hori irudi baten bidez azaltzen zuen Chillidak: “Ezker eskuarekin marraztea”<sup>2</sup> ikasle garaian bere buruari inposatu zion premisa metodologikoa, bere ibilbide profesional osoan erabili zuena, trebetasuna eta aurretiko ezagutza bere lanaren ildoan izan ez zitezen; horrela lortu zuen bere adimenari, emozioari eta sentimenari aurretik joaten uztea. Jarduteko modu bat, gaur egungo praktikatik begiratuta entzute aktibo deituko genukeen, eta gure inguruneari ez ezik, materialekiko hartu-emanari eta beste ezagutza-modu batzuei ere aipamena egiten diena —definizioari berari ihes egin eta sentsazioei eta pertzepzioei erantzuten dieten horiei—. Eduardo Chillidak berak zioen bezala: “Esperientzia jakintzara bideratuta dago. Pertzepzioa, berriz, jakitera”. Eta jakintzaren metaketa —modernitateak hain berezkoa duena— ezbaian jartzen duen premisa horretan sortuak dira, hain zuzen, erakusketa honetako proposamenetako asko; ezagutzen dena iragankortasunez eta, beraz, afektuz eta efektuz hornitzen duen horretan.

1 Latour, Bruno (2012) “Esperando a Gaia. Componer el mundo común mediante las artes y la política”, *Cuadernos de otra parte. Revista de letras y artes*, 26. zk. 2012ko negua, 67-76. or.

2 Ikus: “Eduardo Chillida. Conversaciones”. Edit. Susana Chillida. *Blow Up Libros únicos*. La Fábrica eta Chillida Leku Museoa, 2021.

JOSU BILBAO (Bermeo, 1978) mintzamenaren fenomeno fonetiko-akustikoe-tatik abiatzen da, azentutik, tonuetatik eta intonaziotik besteak beste, eta intuiziozko harreman bat eratzen dute eskulturarekin. *Topalekuak*, bolumen eskultorikoak —janzkiak hustu izanetik sortuak— gorputzak dira ia eta, haien presentzian, “asaska” terminoa entzuten da. Euskarak bezala, bolumen hauek ez dute sustrai ezagunik, eta gabezia hori irudimenerako eta kontakizunerako aukera bihurtzen da. Hala, bolumen horien lekualdaketa da —artistak Artxandan (Bilbo) duen estudiotik erakusketaren espaziora— instalazio bihurtzen dituen, denboraren joanaren arrastoa eta elementu naturalen efektua berekin ekarrita. Eta horrek guztiak gogoeta sustatzen du kolektibotasunari buruz eta ahozkotasunak —aldi berean memoria transmititzeko eta eraikitzeko tresna ere denak— testuingurua definitzean betetzen duen zereginari buruz. Lan-prozesu honetan bolumenak erlazio eta irekigune bihurtzen dira, eta konektatu egiten dituzte pentsamendua-hizketa eta materia-energia munduak. Bilbaok ahotsarekin lan egiten du, ahozkotasunaren osagarri den aldetik. Pertsonen eta espazioaren artean artikulatzen den boza, presentzia-forma bihurtzen dena jardun poetiko/artistiko konplexu-etatik abiatuta.

Jufek [BEA ORTEGA BOTAS (Oviedo, 1990) eta LETO YBARRA (Madril, 1991)] ekarri digun proposamena ikerketarako ariketa praktikoa bat da; gorputza hizkuntzan sartzeko nahi batetik abiatzen da, eta puntuazioaren dimentsio poetikoa erabiltzen du lan-tresna gisa: arnasa hartzeko etenaldiak, hizketaren abiadura markatzen duten edo intonazioa modulatzeko duten zeinuak. Horretarako, hainbat galdera planteatzen dira: Nola lurreratu daiteke hizkuntza? Nola izan daiteke leku batekoa eta bertan eragin? Eta nola sortzen da hizkera bat toki eta une jakin batean inskribatuta? Sokasaltoak puntuazioa nahieran eramaten du mekanismo motorizatu batera eta, lurra ukitzen duen bakoitzean, erritmo bat, aire-korrante bat, hutsune bat sortzen ditu; eta azken honen eskatu egiten du mugimendu edo egitura horretan gorputz bat edo batzuk sartzeko. *Sokasalto* (2024) tresna bihurtzen da gorputzei buruz gogoeta egiteko, gorputzak bertan egon gabe, eta sokasaltoak lurra ukitzean sortutako erritmoaren bidez, hizkuntzan eragina duten egitura- eta botere-faktore horietan sakontzeko.

EDUARDO CHILLIDAREN *Maqueta para Homenaje a Hokusai* (1991) eskulturan lekuarekiko duen ahalmenari buruzko hausnarketa hori bera sumatzen da, espazioak eraldatzeko eta, ondorioz, ikusleak ibiltzera gonbidatzen dituen espazioak sorrarazteko duen ahalmenari buruzkoa. Kasu honetan, materiak lurra ukitzen duen espazio bat da, eta plano bertikalen pisuan agertzen da grabitatearen indarra; hari kontrajarriak dira *Proyecto Lugar de encuentros* (1972 eta 1973), airean esekitzeko pentsatuak, lebitatzeko. Chillidaren lanean agertzen den dualtasun handietako bat da hau, askotan erabiltzen zuena termino espiritualez edo mistikoez hitz egiteko, eskultura ez ezik, inguruan dituen elementu naturalekiko hartu-emanaren ere ulertzeko.

SHEROANAWA HAKIHIIWE (Sheroana, Venezuela, 1971) artista indigena bat da. Pori Porin bizi da, Amazoniako yanomami komunitatean. 1990eko hamarkadaz geroztik garatzen aritu den lana bere herriaren ahozko memoria, kosmogonia eta antzinako tradizioak berreskuratzea bideratuta dago. Hakihiwek bere marrazkietan islatzen du gizakiaz haraindi duen kosmobisioa: animalien, ibaien eta landareen izaera espiritualak; osotasun bat eratuz, haiekin batera, guztiaren parte gara.

ELENA AITZKOA (Apodaka, 1984) Zarandonako haranetik (Araba) lan egiten du. Han, oihartzuna entzuten da basoen eta ibaiaren artean, eta handik hitz egiten digu gorputzak hustasuna sentitzean bizi duen esperientziak. Bertan, poesia bihurtutako hitzak islatzen dira, eta elementu naturalek eskulturak blaitzen dituzte zentzumenetatik harago doan irekitze-ariketa batean. Lan-prozesu hau "irudia islan" bilatu nahiak markatutakoa izan da. Hala, Apodakako latsarritik abiatu da paisaia bat eraikitzeke, erakusketagunean entzuten den ur isuriak zeharkatua. Paisaia honetan izaki ugari bizi da, eskulturak osatzen dituzten marrazkiek eta naturako hondarrek gogora ekarriak.



1



2



- 1 JOSU BILBAO  
*asàska*, 2024  
Artistaren kortesia
- 2 Juf (BEA ORTEGA BOTAS eta LETO YBARRA)  
*Sokasalto* (Prototipoa), 2024  
Artisten kortesia
- 3 SHEROANAWE HAKIHIIWE  
*Hi i hiye riye riye (II) / Planta verde (II)*, 2022  
ABRA galeriaren kortesia



3



4 EDUARDO CHILLIDA

*Proyecto Lugar de encuentros, 1972*

Argazkia: Alberto Cobo.

Chillidaren Ondorengotzaren eta Hauser & Wirth-en kortesia

© Zabalaga-Leku. San Sebastián. VEGAP, 2024.



7



8

- 5 MARIANNA SIMNETT  
*Blue Moon*, 2022  
 Artistaren eta Berlingo Sociétéren kortesia
- 6 ELENA AITZKOA  
*Temperatura*, 2024  
 Artistaren kortesia

- 7 CHRISTIAN SALABLANCA  
*Con las palmas de la manos,  
 con las plantas de los pies*, 2024  
 Artistaren kortesia
- 8 LAIA ESTRUCH  
*Sibina*, 2019  
 Galería Ehrhardt Flórezen kortesia

LAIA ESTRUCH (Bartzelona, 1981) abereen aska zaharrak berreskuratzen ditu *Sibinan* (2019). Lehorreko egoera batetik uretako egoera batera igarotzeko aktibatzen ditu poema batek gidatuta. Ahozko tradizioan oinarritutako kontakizun bat eraikitzen du, hainbat emakume-irudi protagonista dituen. Gorputzaren eta aho-tsaren mugimenduek urarekin eta eskulturekin harremanean izandako bilakaeraren bidez, proiektuak kantu espiritual sorta bat editatzea du helburu, eta horrekin erritu bat ernaldu, giza izaeraren eta haren ingurunearen muinera eramango gaituena.

CHRISTIAN SALABLANCA DÍAZen (Guararí, Costa Rica, 1990) *Con las palmas de las manos, con las plantas de los pies* (2024) osatzen duten piezek bibrazioaren bitartez memoria aktibatzeaz hitz egiten digute. Horretarako, haizea gorpuzteko moduak bilatzen dihardu, Euskal Herriko eta Erdialdeko Amerikako soinuak tradizioak uztartzen dituzten musika-instrumentu xumeekin. Objektu eskultoriko gisa ageri dira, eta topaketaz hitz egiten digute, ez bakarrik tradizio kulturalen artekoaz, baita espezieen arteko topaketaz ere. Hala, landareen eta gizakien aldi bereko existentziari egiten dio erreferentzia, baina baita landareek elikatzen dituzten intsektuekiko aldi bereko existentziari ere, naturan oreka eusten duten gatazka horietan landareek izan lezaketen bitartekari-rola nabarmenduta.

Prozesu horretan EDUARDO CHILLIDAREN marrazki begetalen serieak (1946-1951) hartzen du protagonismoa, aditzera ematen baitigu eskultoreak behaketa aktiboaren eta marrazketaren bitartez natura ezagutzeko duen desioa. Forma botaniko batzuk espazioan flotatzen daude, beren testuingurutik abstraituta, SALABLANCA DÍAZen objektu eskultorikoak edo SHEROANAWÉ HAKIHIIWÉren naturako izakiak bezala. Lan-prozesuen bidez ezagutzeko desio hori Chillidaren *Lurra [Lurra G-246 eta Lurra G-249, (1992)]* eta *Óxidos (Óxido 42, 1979)* serieetan ere ageri da. Horietan, lurra erabiltzen du burdinaren eta hormigoioaren orde, eta eskala aldatzen die pieza askoz txikiagoak ekoizteko; monolito primarioak, non egosketa-teknikak eta erabilitako pigmentuek eragina duten azken itxuran, artistari berari, askotan, kontrolaezin egiten zaiona.

*Blue Moon* (2022) kanal bakarreko instalazioa da. Bertan, MARIANNA SIMNETTek (1986) emakume-irudi bat aurkezten digu, Athenea garaikide bat da, baso urdin *technicolor* batean harrapatua, etengabe eraldatzen da, bere gorputza distortsionatu egiten da adimen artifizialeko algoritmo baten eraginez. Natura saturatu horrek ez du erromantizatu nahi, eta ez du erromantizatu izan nahi; aitzitik, hausnarketa kritikorako espazio bihurtzen da, teknologian zentzu zabalean pentsatzeko, artisau-prozesuetatik hasi eta ordenagailuz sortutako horietaraino.

*Topalekuak*en sartzen diren proiektuen helburua ez da legatu bat ilustratzea edo irudikatzea, Eduardo Chillidaren idatziekiko oihartzun izatea baizik. Izan ere, Eduardo Chillidaren idatziak “lehengaitzat”<sup>3</sup> hartzen dira, eta haietatik abiatuta, elkarrizketa bat sortzen da orainaldian. Prozesu artistikoen materialtasunean arreta jartzten duen elkarrizketa da, eta prozesu horietan jokoan sartzen dira absentziak eta presentziak, desioa eta ahozko kontakizunek eta narrazio estrukturalak elikatzen duten testuingurua, paisaia bat sortzen duena, erakusketa bihurtzen den orografia bat. Artista hauek esanahia sortzeko beste modu posible batzuei ematen diete bidea. Inguratzen gaituen unibertsoarekin harremanetan daude ezagutza-iturri gisa, gizakien eta gizakiaz haragokoaren arteko harremanetik, sarean, eraikitako espazio gisa, inguratzen dituen munduarekin lotuta beste erantzun posible batzuk imajinatzeko.

Soledad Gutiérrez Rodríguez

3 “Lehengaiaren” ideia Marina Garcésengandik hartu dut, Maurice Merleau-Pontyri buruz egin zuen irakurketan “Biblioteca Abierta” ikastaroan, MACBAn, 2015eko otsailaren 16an.

ELENA AITZKOA  
(Apodaka, 1984)

*Temperatura*

2024

Teknika mistoa  
16 x 25 x 13 cm

*Arrullo y vuelo*

2024

Teknika mistoa  
79 x 113 x 53 cm

*Nido*

2024

Teknika mistoa  
38 x 77 x 70 cm

*Vuelo de gorrión*

2024

Teknika mistoa  
71 x 114 x 56 cm

*Envergadura*

2024

Teknika mistoa  
70 x 170 x 67 cm

*A/a*

2024

Teknika mistoa  
80 x 215 x 67 cm

*O/a*

2024

Teknika mistoa  
70 x 340 x 54 cm

*Aleteos, ónfalo, pétalos*

2024

Serie aldakorra

Teknika mistoa akuarela paperean  
50 x 70 cm

Ekoizpen berria

JOSU BILBAO

(Bermeo, 1978)

*asàska*

2024

Elementu eskultorikoen multzoa  
Neurri aldakorrak

Ekoizpen berria

EDUARDO CHILLIDA

(Donostia, 1924-2002)

Izenbururik gabe

1962

Papera, tinta  
19 x 19 cm

Izenbururik gabe

1946

Papera, tinta  
31,5 x 29,5 cm

Izenbururik gabe

1947

Papera, tinta  
16,7 x 22 cm

Izenbururik gabe 1949 Papera, tinta 27 x 19,8 cm	LAIA ESTRUCH (Bartzelona, 1981)  <i>Sibina</i> 2019
Izenbururik gabe 1950 Papera, tinta 37,9 x 14,2 cm	Performancea, ahotsa, testua, ura eta burdinezko askak 110 x 140 x 30 cm 85 x 140 x 30 cm 85 x 140 x 30 cm
Izenbururik gabe 1951 Papera, tinta 33,5 x 29,3 cm	Galería Ehrhardt Flórezen kortesia
<i>Proyecto Lugar de Encuentros</i> 1972 Igeltsua 27,5 x 62 x 27,5 cm	SHEROANAWÉ HAKIHIWE (Sheroana, Venezuela, 1971)  <i>Seimi siki (Pluma de pájaro tangara)</i> 2022
<i>Proyecto Lugar de Encuentros</i> 1973 Igeltsua 60 x 25 x 30 cm	Akrilikoa kotoi paperean 50 x 36,5 cm
<i>Óxido 42</i> 1979 Txamota lurra eta kobre oxidoa 25,5 x 18 x 13 cm	<i>Hii riye riye puriwahi (Palo verde espíritu)</i> 2022
<i>Maqueta para Homenaje a Hokusai</i> 1991 Burdina 22 x 28 x 43,8 cm	Akrilikoa kotoi paperean 50 x 36,5 cm
<i>Lurra G-246</i> 1992 Txamota lurra 29,5 x 30 x 26 cm	<i>Yamira shii (Relámpago)</i> 2022
<i>Lurra G-249</i> 1992 Txamota lurra 35,5 x 50 x 8,5 cm	Akrilikoa kotoi paperean 50 x 36,5 cm
Chillidaren Ondorengotzaren eta Hauser & Wirth-en kortesia	<i>Hii tahiapi hi amakuripi (Un palo con rastro iridiscente)</i> 2022
	Akrilikoa kotoi paperean 36,5 x 50 cm
	<i>Haya yimika (Hongo oreja de venado)</i> 2022
	Akrilikoa kotoi paperean 36,5 x 50 cm

*Atayu wakamoshi (Oruga verde grande)*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
36,5 x 50 cm

*Isharomi shinaki (Plumas de arrendajo)*

Akrilikoa kotoi paperean  
36,5 x 50 cm

*Sikomi asiki (Hongo comestible)*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
50 x 36,5 cm

*Hii hi peno uhuti (Espíritu de los troncos de los árboles)*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
43 x 53 cm

*Hii i hipe amakuripe V (Palos con rastros iridiscentes V)*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
50 x 35 cm

*Hi i i hipe riye riye (II) (Planta verde II)*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
50 x 35 cm

*Ayacorami shinaki (Colas de turpial)*

*Tríptico*

2022

Akrilikoa kotoi paperean  
35 x 50 cm (marrakki bakoitza)

ABRA galeriaren kortesia

Juf (BEA ORTEGA BOTAS ETA LETO YBARRA)

*Sokasalto*

2024

Soka, motorra eta metakrilatoa  
170 x 100 x 550 cm

*Swing I, II y III*

2024

Marrakzia paperean  
70 x 50 cm

Ekoizpen berria

CHRISTIAN SALABLANCA DÍAZ  
(San José, Costa Rica, 1990)

*Con las palmas de la manos, con las plantas de los pies*

2024

Teknika mistoa  
Neurri aldakorrak

Ekoizpen berria

MARIANNA SIMNETT  
(Londres, 1986)

*Blue Moon*

2022

Soinudun bideo digitala  
5 bariazio  
5'

Artistaren eta Berlingo Sociétéren kortesia





ESKERTZAK:

Artista parte-hartzaile guztiei

ABRA galeria

Chillida Leku

Eider Corral

Galería Ehrhardt Flórez

Elba Benítez galeria

etHALL galeria

Hauser & Wirth

Ula Iruretagoiena

Juglans&regia

Société, Berlin

Chillidaren Ondorengotza

Estanis Comella

Henry Eigenheer

Gabriel Martínez

Luis Romero

Rocco Roncuzzi

Manu Uranga



TABAKALERA



**KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA**

Andre Zigarrogileak plaza, 1  
20012 Donostia

ERAKUSKETA-ARETOAREN ORDUTEGIA  
Asteartea-Igandea  
12:00-14:00/16:00-20:00  
Astelehenetan itxita

**INFORMAZIOA**

T. [+34] 943 218 855  
E. [info@tabakalera.eus](mailto:info@tabakalera.eus)

**BULEGOA**

T. [+34] 943 011 311  
E. [tabakalera@tabakalera.eus](mailto:tabakalera@tabakalera.eus)  
[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)



**EDUARDO  
CHILLIDA  
100 AÑOS**